

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, EUSKADIKO UDAL ERAKUNDEEN TXOSTENARI BURUZKOA, 2010

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Euskadiko Udal Erakundeen gaineko txostena jaulki du, 2010eko ekitaldiari buruzkoa. Txostena aho batez onetsi dute HKEEren Osokoaren kideek.

HKEEk EAren udalen eta udalaz gaindiko entitateen Kontu Orokorrak aztertu ditu, eduki formala eta toki alorraren finantza egoera balio-neurtuz. 251 udaletatik 247 udalen Kontuak aztertu dira eta udalaz gaindiko 65etatik, 55enak. Txostenean, gainera, kontuak aurkeztu ez dituzten udal eta udalaz gaindiko erakundeak bereizi dira.

Udalen finantza egoerari dagokionez, txostenak azpimarratu du 2010/12/31n baliatutako batez besteko zorpetzea udalen sarrera arrunten gainean % 3,41ekoa izan dela. Biztanleko batez besteko zorpetzea 289 eurorena da. Guztira 70 udalek ez dute zorpetzerik eta 27 udalek, berriz, biztanleko baliatutako zorraren batez bestekoa nabarmen gainditzen dute.

Halaber, termino globaletan, inbertsio garbiak aurreko ekitaldiarekiko % 29ko beheraldia izan duela azaleratu da eta horrek biztanleko 327 euro egiten ditu batez beste.

Presio fiskala (zerga zuzenak, zeharkakoak, tasak eta bestelako sarrerak) biztanleko euroetan neurtuta 516 eurora arte igo da, 2009ko ekitaldiarekiko % 2,79 goitik kokatzen dela.

Udalaz gaindiko entitateei dagokien zorpetzea aurreko urtekoa % 13an gehitu duela adierazten du eta 583 milioi euroren zenbatekoa egin du guztira. Zor honen zatirik handiena, % 86, Bizkaiko Garraio Partzuergoaren jabetzakoa da. Berebat, txostenean adierazi du diru-laguntza bitartez finantzatutako kapitalaren gastu ehunekoak gora egin duela 2010ean, % 48,49 eginez.

Txostenaren eranskinetan, gainera, kontuak auditatuak dituzten udalen zerrendaz gain, azaleratu diren akatsen zerrenda eta udalen araberako xehapena jasotzen da. Berebat, HKEEren web orriarekiko lotuneari buruzko informazioa ematen da; bertan, erantsitako

likidazioak ez ezik, udalen arabera xehatutako ekonomia-finantzazko informazioa ere ematen da.